

# elkar

NEGUA 2019

58. ZENBAKIA

www.elkar.eus



## KARMELE JAIO

*Aitaren etxea,  
indarkeriaren mehatxu etengabea*

+

### BIGARREN SEXUA

Simone Beauvoirren iraultza

### DOLORES REDONDO

*La cara norte del corazón*

### IZEN PROPIOAK:

Anjel Lertxundi · Ibon Martín · Ascensión Badiola · Koro Navarro · Irati Jiménez · Antton Olariaga ·  
Unai Elorriaga · Toti Martínez de Lezea · Harkaitz Cano · Adur Larrea · Begoña Elorrieta · Aritz Gorrotxategi  
Txema García-Viana · Joan Mari Torrealdai · Irati Elorrieta · Ruper Ordorika · Alai Zubimendi · Eñaut Elorrieta  
Joxemari Sors · Pier Paul Berzaitz · Iñaki García Holgado · Pello Añorga · J. Black River · María Simabilla






# EGIN HARPIDETZA!

ETA JASO ELKAR DENDETAN  
ERABILTZEKO 10€-KO BONOA!

Baliatu gure eskaintza berezia eta jaso urtean iRRiAren 10 ale etxean!!

URTEAN  
**49€**



## HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:

Telefonoz: 902 820 806 zenbakira deituz

E-posta: harpidetza@irrienlagunak.eus helbidera idatziz.

[www.irrienlagunak.eus/harpidetza-n](http://www.irrienlagunak.eus/harpidetza-n) izena emanaz.



ALAI ZUBIMENDI



## Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan



@elkar



@elkar



elkartaldea



elkarTaldea

postdata.elkar.eus



**elkar**  
*liburu-dendak*

**ALGORTA (GETXO)**  
Telletxe 11  
94491 66 16

**ARRASATE**  
Erdikokale 14  
943 79 78 29

**BAIONA**  
Arsenal plaza  
559 5935 14

**BASAURI**  
Dr. Jose Garai 11  
944 26 13 84

**BERGARA**  
Ibarra 7  
943 76 40 50

**BILBO**  
Licenciado Poza 14  
944 43 47 08

**Iparragirre 26**  
944 24 02 28

**ZAMUDIOKO**  
ataria Zazpikale  
944 16 14 50

**DONOSTIA**  
Fernin Calbeton 21  
943 42 00 80

**BERGARA 6**  
943 42 63 50

**GASTEIZ**  
San Prudencio 7  
945 14 45 01

**Apraiztarrak 1**  
Campus  
945 14 16 70

**HERNANI**  
Kale Nagusia 30  
943 55 15 37

**IRUN**  
Colon pasealekua 8  
943 63 17 26

**IRUÑEA**  
Comedias 14  
948 22 41 67

**LEIRE 9**  
948 17 55 38

**TOLOSA**  
Arostegieta z/g  
943 67 35 33

**GARBIÑE UBEDA**  
mehatxua

**elkar**  
www.elkarargitaletxea.eus



## KARMELE JAIO



**AITAREN ETXEA**  
Karmele Jaio  
ELKAR

**“Indarkeriaren mehatxua  
beti dago hor, eta gure bizitza  
baldintzatzen du”**

**la hamar urte igaro dira Karmele Jaiok (Gasteiz, 1970) aurreko nobela, *Musika airean* (2009, Elkar), plazaratu zuenetik. Geroztik narrazioak (*Ez naiz ni*, 2012) eta poesia (*Orain hilak ditugu*, 2015) kaleratu ditu. *Aitaren etxea* izenburuko nobela du lanik berriena. Hiru pertsonaia nagusiren inguruan eraikitako istorioa da; generoaren rolek duten pisu zein zamaren inguruan, literatuaren eta idazkuntzaren inguruan, familiaren inguruan, gatazka politikoaren inguruan... eraturiko nobela zuen bezain trinkoa da, ertz askotarako bide ematen duena.**

Erresonantzia asko dakartz *Aitaren etxea* izenburuak berak; Arestiren poema ospetsua, Hertzainaken *Hil ezazu aita*, patriarchatua, aurreko be-launaldiekiko lotura/ talka artistiko zein bitala... Guztiak ageri dira liburuan?

Kezka batek zeharkatzen du nobela: Nola egin bealaundiz bealaundiz transmitten du herentzia kultural bat desaktibatzeko eta gure bizitzetatik desagerrazteko? Eta horren aurretik, nola egin herentzia horren pean bizi garela detektatzeko? Gehienetan hain barneratua dugu, ez baitugu ikusten ere. Nobela honetan aitaren figurak sinbolizatzen du balore konkretu batzuen transmisioa, hain zuzen ere, gizon izateko modu konkretu baten transmisión, eta hortik dator “aitaren etxea”. Baino nobelan ez da bakarrik gizonei buruz hitz egiten. Gizon batek eta bi emakumek hitz egiten dute, eta bakoitzak agerian utzik du, beste gauza batzuen artean, zein pisu izan duen generoak bere egiteko moduetan, bere heziketa sentimetalan, besteeik berarenengan izan dituzten espeki-

## La mansión de los chocolates

Una novela tan intensa y tentadora como el chocolate

Con todos los ingredientes para convertirse  
en una adicción. ¡La devorarás!

FÚNDETE ENTRE SUS PÁGINAS  
Y SÚMATE A LA AVENTURA



tatibetan... Generoak gizarte honetan eragiten digun gehiegizko marka hori nola gainditu. Galdera horrek zeharkatzen du liburua. Eta bai, garai bateko erresonantzia ere badakar, pertsonaien gazte garaikoa, eta orduko soinu bandan Hertzainak daude, Kortatu dago... baita garai hartako giro politiko nahasia ere.

**Nobelan agertzen dira gogoeta zenbait literatur idazkuntzari buruz: esaterako, idazleak ez due la dakinari buruz idatzit behar, deskubritu nahi duenari buruz baizik. Zer deskubritu nahi zenuen zuk? Eta deskubritu duzu?**

Nire idazketa prozesua beti izaten da bilaketa bat. Idazten hastean intuizio moduko bati jarraitzen diot, ez dakit ziur zer kontatu nahi dudan. Hemen ere horrela geratu zait, inoiz baino gehiago agian, ilunetan aritu naiz bazterrak haztatzen, eta horregatik ere denbora asko kostatu zait bidea aurkitzea. Ez nuen gai konkretu bat buruan hasieratik, baina jakin-minak bultzatu nauela uste dut, galdera batek: nola bizi ote dute gizonek garai aldakor hau? Zer sentitzen dute, adibidez, emakume bat bortxatzen dutenean edo hiltzen dutenean? Errudun sentitzen dira? Deseroso sentitzen dira gizon direlako? Ala horrek beraiekin zerikusirik ez duela pentsatzen du-te? Hor arakatu nahi nuela uste dut. Jakin-mina handia delako. Eta esan behar dut idatzit bitartean oso presente izan dudala topikoetan eta orokorkerietan jausteko oso terreno labainkorra dela eta horregatik ibili naiz beldurrez bezala, kontu handiz, idazketa-prozesuan.

**Botere harremanek dena ukitzen dute bizitan, baita literaturan ere. Hemen inoiz baino gehiago esplicitatu dituzu botere harreman horiek?**

Botere harremanak edonon daude. Esango nuke sei urteko umeen ikasgela batean ere botere harremanak existitzen direla. Galdera da, nire ustez, zerk ematen dion boterea bat eta zerk kentzen dion boterea besteari. Zerk bihurtzen du jarduera bat edo hitz bat garrantzitsu eta zerk debaluzaten du. Eta generoak hor duen eragin itzela. Gure eguneroko harremanen azpitik lur azpiko ibaien antzera dabilztan botere harreman horiek azalarazi nahi nituen, eragina dutenak gure harreman sentimentaletan, gure lanetan, gure familian, gure bizitzako eremu guztietan.



AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIA: JON HERNAEZ

**Literaturaz, harreman afektiboez, familiaz, genero ikuspegiaz, euskal gatazkaz diharduzu... eta esparru guztietan usaintzen da, tentsioa ez ezik, baita indarkeriaren lurrinrik. Indarkeria hori nola destilatu literaturara; horretan izan duzu lanik handiena?**

Aipatu dituzun botere harremanek sortzen duten tentsioa dago kontatzen denaren azpian. Tentsio bat dago, entengabekoa, soka baten alde batean eta bestean gau de beti tiraka, beste pertsona batekin harremanetan gaudenean. Indar horiek ia inkontienteak dira. Askotan indarkeria erabiltzen dugu edo indarkeriaren biktima gara konturatutu gabe ere. Baina indarkeriaren mehatxua beti dago hor, eta gure bizitza baldintzatzen du. Batzuetan agerikoa da, beste batzuetan denbora eta hausnarketa bat behar izaten dugu hor dagoela ikuste ko. Erro luzeak ditu indarkeriak.

**Hiru pertsonaia nagusi daude, eta bakoitzak zenbait kapitulu ditu bere izenez. Pertsonaietako batek, Ismaelek, zaitasunak ditu emakume baten azalean sarturik nobela bat idazteko. Hirure-**

**tako zeinen azalean sartzea kosta zaizu gehien?**

Ismaelek bere buruari galdetuko dio zergatik kostatzen zaion hainbeste emakumezko pertsonaia horren barruan sartzea. Eta honek beste galdera bat sorraraziko dio: nondik begiratzen die emakumeei? Hiru pertsonaia nagusi ditu nobelak, bi emakume eta gizon bat, eta era kusten digute nondik begiratu, ikusten duzun errealitya oso ezberdina izan daitakeela. Eta hiruren artean, bai, gehien kostatu zaidana gizona izan da.

**Ez da ohikoan bigarren pertsona erabiltzea egun nobeletan narratzaile modura; bi pertsonaiarekin hala egin duzu; bestea, aldiz, lehenengo pertsonan mintzo da. Buelta asko eman dizkio zu egiturari?**

Egiturari bai, ez hainbeste bigarren, lehen edo hirugarren pertsona aukeratzeko erabakiari. Aukera ezberdinak jolastu nuen, eta azkenean iruditu zitzaidan bigarren pertsona eraginkorra zela gure barne ahotsa edo kontzientziaren ahotsa azaltzeko. Baina egiturak bai, buruko min gehiago eman ditzkit.

**Zure lanik ausartena da formalki zein edukiz?**

Aukeratu nitzakeen bide errazagoak, baina gorputzak eskatu didan bidetik jo dut, nahiz eta jakin zaitasun gehiago aurkitu nitzakeela bidean.

**Eleberrian aipatzen da bi plano gurutzatu behar direla beti literatur lan batean; haurrente begirada eta jarrera jolastia, eta helduaren zehaztasun zorrotzagoa. Zein gailendu zaizu?**

Biak daude. Hasieran ia pentsatu gabe buruan nuena brastakoan bota nuen, ume baten antzera; eta gero heldua agertu zen, gauzak zuzentzera, piezak bere leku jartzera, Legoa muntatzen, eta muntatu bitartean umeak orrian utzi diona ulertzen saiatzen.

#### GORKA EROSTARBE

Kazetaria

LA NUEVA NOVELA DE  
**ARTURO PÉREZ-REVERTE**

**NO TENÍA PATRIA NI REY, SÓLO UN PUÑADO DE HOMBRES FIELES.  
NO TENÍAN HAMBRE DE GLORIA, SÓLO HAMBRE.  
ASÍ NACE UN MITO.  
ASÍ SE CUENTA UNA LEYENDA.**



**ASCENSIÓN BADIOLA ARIZTIMUÑO**  
Escritora



## Proposamena

# DIEZ MIL HERIDAS

*Diez mil heridas*, del navarro Patxi Irurzun y editado por Harper Collins Ibérica, es una novela histórica y también de aventuras, repartida en tres libros: Medianapia-Mostrenero y Bizco, por la que pululan personajes entrañables y bien descritos como el histórico Sancho Errota, molinero y famoso bandido de Las Bardenas, que repartía justicia social robando a los que tenían para dárselo a los que no; o como el catador de veneno, al servicio del príncipe de Viana, Pedro Guinea, un negro al que le falta media napia, enamorado de una loca de palacio, de las que tenían los reyes para entretenerte, de nombre Urraca. La saga, en

los libros dos y tres, continúa con el pícaro Antón Aguirre, nieto de Pedro Guinea, que se mueve entre patios de comedias y Zaida, madre de Antón y padrastro del Lazarillo de Tormes, que acompaña al conquistador Alvar Núñez Cabeza de Vaca por el Nuevo Mundo. En definitiva, un universo literario creado para relatar las aventuras de tres generaciones de negros navarros mostrencos (negros libres), personajes de ficción que viven entre los siglos XV y XVI.

Con estilo desenfadado, no exento de lirica y lleno de humor, a veces un poco escatológico, otras con tintes eróticos, y en la mayoría, con la sorna típica y muy

personal de este autor, se plantean escenas célebres como cuando Patxi Guinea descubre orinando a Urraca o como cuando Antón Aguirre da con sus huesos en un hospital en el que las monjas consuelan con el movimiento de una mano a los enfermos masculinos, que sanan contentos, aunque luego le cabrá la duda de si habrá sido una calentura más de su cabeza.

*Diez mil heridas* es una novela muy recomendable que nos sumerge en las heridas que sufren sus personajes, pero de una forma muy entretenida y peculiar, como su autor. Mi calificación: Muy buena. Lectura: fácil.



**DIEZ MIL HERIDAS**  
Patxi Irurzun  
HARPERCOLLINS

## Profila DORIS LESSING


# MUNDUA ZABALTZEN



**KORO NAVARRO**  
Itzultzalea

Batzuetan, irakurtzen ari zarela, edo itzultzen –itzultzea irakurtzea baita, baina lupa handi batekin, eta luparen alde on eta txarrekin-, bihotzak salto egiten di zu. Literatura onaren aurrean zauden sei-nale; eta itzultzen ari bazara, argi dago, txorrotxago aritu beharko duzu. Halaxe gertatu zitzaidan Doris Lessingen *Belarra kantari* itzultzen ari nintzela, pasarte honetan bestea beste (Britainiar Inperioaren mendeko Hego Rodesian daude, XX. mende hasieran; Mary kolono zuria da, eta "natiboak" beltzak):

Maryri gizon natiboak ez zitzaizkion gustatzen, eta emakumeei, berriz, gorrotoa zien. Gorrotoa zien haien ageriko haragiei, haien gorputz ilun bigunei eta aurpegi umil lotsatu baina aldi berean ozar eta mutiriei, eta gorrotoa zion ukitu lotsagabe bat zuen haien boz kalakariari. Ezin zuen eraman emakume haiiek belarretan eserita ikustea, hankak ipurdi azpian tolestuta beren denboraz kanpoko postura hartan, sosegu osoan (...). Eta gorrotoa zion, gauza ororen gainetik, emakume beltzek haurrei bularra emateko zuten mo-



duari, titiak zintzilik, jende guztia ikus-teko moduan; bazeukan zerbaitek haien amatasun bare gogoaseak Maryri odola irakiten jartzen ziona. "Umeak gorputzetik eskegita, izainak bezala" esaten zuen Maryk dardar-ikaraz bere artean, izututa pentsatzen baitzen beti zer ote zen haur bat bularra ematea. Arrunt gaizkitzen zen haur baten ezpainak bularretan sumatzearen ideia hutsarekin; gogoeta-rekin berarekin, batere ohartu gabe, bularren gainean ixten zituen bi eskuak, bortxatzetik babestuko balitu bezala. 1950ean kaleratu zen *Belarra kantari*. Eta ia 70 urteren buruan, sentiarazten digu oraindik ere liburuak emakume honen... Arrazakeria? Matxismoa? Inbidea? Frigido-tasuna? Literatura onaren beste ezaugarr bat: pentsatzen bultzatzea. Ez mezuak ematea, ez argibideak eskaintzea, baizik eta mundua zabaltzea, zuri-beltza (orduan bezain indartsua baita orain zuri-beltzaren errazkeria) lausotzea eta gauzen konplexutasunez jabetzea. Hil zen Doris Lessing, urteak dituzte haren obrak, baina zenbat erakusten digun oraindik ere!

ARGAZKIA: ELKE WETZIG



IRATI JIMÉNEZ IDAZLEA

BARREN-BARRENEAN

## BASA-KOBLAKARIETATIK PARNASO POETIKORA

Euskal literaturaren iraganari begiratzen diogunean normala da pena hartza: liburu gutxi ditugu eta abade asko. Ez dugu iragan loriatzorik izan baina –dena ez da txarra– izan dugu loriarik gure iraganean. Agosti Zahok, adibidez, erromantizismo feminista bat inauguru zuen duela ia 200 urte, prosa liriko gogoangarrian eta gure herriaren genio poetikoaz ohartarazi zigun.

Xahok, Oihenartekin batera, Euskal Herriko bazter guztietako kantak, koplak eta errimak jaso eta aztertu zituen eta konbentzitu egin zen beste Europako nazio batzuekiko abantaila zutela euskaldunek. Letradun poetarik izan ez arren, bagenuela benetako genio poetikoa, bairela hemen poesia “gisa, gostu, espíritu eta dotorezia” handiz gai egiteko ziren basa-poetak.

Arrazoi ote zuen? Kasu horretan, bertsolaritzaz ez litzateke fenomeno berezia baizik eta berezitasun batetik sortutako fenomenoa. Teoria honek izan lezake merurrik, izan ere, gure poesia eta narratiba modernoari begiratzen badiogu –teatroaren pozak segundo batez alde batera utzita– hobeto moldatu gara poesian kopuruz eleberriantz baino. Badira eleberri ederrak gurean, jakina, eta askotan hoberenetako asko ahaztu egiten zaizkigu –Patxi Zubizarretaren *Joan onirikoa* (Txalaparta, 2010), Jon Alonsoren *Hodei Berdeak* bikaina (Susa, 2003), Edorta Jimenezen *Sukar ustelaren urtea* metafisikoa (Txalaparta, 2004)– baina ez dut uste eleberriantz edo ipuingintzan lortu dugunik poesia-gintzan lortu duguna: karrera luzeak eta joriak egiteko moduko idazle saldoa, etenik gabe katebegia osatzeko gaitasuna duena eta hamarkadetan zehar liburu ederrak egiteko gai dena.

Poesiaren kontinentea da gure literaturak daukan zabala. Gabriel Arestirekin inauguratu zen poesia politikoa eta soziala bizirik dago gaur egun Jon Benitoarekin –bere *Bulkada* (Susa, 2010) ederra horren adibide–, Martin Bidaurren moduko poeta gazteak etorri zaizkigu, zaurgarritasuna ezkutatzen ez duen lirismo adoresuarekin –*Itzulera* (Susa, 2017) gogoangarria da bere zintzotasunean–; Oier Guillanek edo Angel Errok mas-kulinitateari buruzko esplorazio liluragarriak egin dituzte –irakurri Mr. Señora (Txalaparta, 2016) edo Gorputzeko




ILLUSTRAZIA: ANTONIO OLARIAGA

*humoreak* (Alberdania, 2005); urteetan zehar bere arimarentzako hiri poetiko propio eta poliedrikoa osatu du poesian, ipuingintzan eta eleberriean Asier Serranok; eta horiez gain badira klasifikaezinak diren hainbat ahots propio, Jon Arano edo Mikel Lasarenak modukoak.

Unibertsio poetiko oparoa osatu dugu azken hamarkadetan eta sarria zena are oparoagoa bilakatu zaigu bakanak ziren emakume ahotsak ugaldu direnean. Gure begien aurrean basa-koblakarien nazioak bere mintzairia osatu du, falta zitzaison humanitate guztia bere zabalera hartzeko. Emakumeek betiko aldatu dute gure literatura eta euskararen kontinente poetikoak ugaldu egin dituzte, gorputzaren, humoreen, umorearen, giza harremanen eta sentsualitatearen geografietaan barrena

bidaitzeko. Hizkuntzaren odola, biztzen gatza, azalaren jakituria, eta lirísmoa ekarri dizkigute poesia liburu gogoangarrieta. Hortxe gure artean klasiko bilakaturiko Azalaren kodea (Susa, 2000), narratiban ere hain ondo aritzen den Miren Agur Meaberena (*Hezurren erretura*, Susa, 2019), hortxe Irauteria, aurrerapausu liriko ederra eman duen Castillo Suarezzen azken liburua (Elkar, 2019) eta hortxe baita lau hizkuntzatara itzuli berri duten *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk* (Pamiela, 2016), Leire Bilbao bikainaren lan saritua.

Elkarrizketa literario ugalkor eta androginoa sortu da euskal literaturan eta bete egin da, azkenik, Amaia Lasa poeta fundacionalak 1971n iragari zuena, *Mari Sorgin* poema ederrean: suzko emetasun bat piztu zaigu.



**“Azken berrogei urteotan,  
euskara hurbildu da  
literatura unibertsalaren  
hizkuntzara”**

# ANJEL LERTXUNDI

**Solferinoko itsuak nola, itzultzailak  
hala, beste hizkuntza eta kultura  
batzuetara alde egin behar du,  
baina herrira *Itzuliz usu begiak*.  
Halaxe deitzen da Anjel Lertxundik  
Alberdaniaren eskutik argitaratu  
duen liburu berria, saio literario bat,  
non bildu baititu itzulpenari buruzko  
ehun eta hemeretzi tesela.**

Itzulpengintzari buruzko hausnarketak bildu dituzu liburu honetan. Antola zitekeen, besteak beste, gaika, baina hiztegi eran antolatu duzu liburua, zergatik?

Aspalditik neki liburuak zer antolamendu izango zuen. Milosz poetak bere autobiografia argitaratu zuen horrela: hartzituen bere bizitzako pasarteak, personaien ize-

nak, Poloniako gertakariak eta haien inguruan jardun zen. Oso formula ona iruditu zitzaidan, bere biografiako ertz asko, puntu asko garatzen dituelako, noski, ez duzu bakoitzean sekulako sakontasuna egiten, baina muina ematen duzu, eta ondoren beste gauza batera zoaz. Itzulpengintzari buruz hainbeste gauza esan litezke, perspektiba ugari bat eskaintzearen aldeko formula bat hautatu nuen.

#### Literatura itzulpenaz aritu zara bereziki.

Nobeletan zentratu naiz bereziki, bestela zeharo dispersioa gerta zitekelako. Ez du ematen, baina euskarako asko itzuli da azkenengo hogeita hamar urte hauetan, eta nola badagoen ekimen bat bereziki horretarako –Literatura Unibertsala bilduma–, eta, gainera, literatura jasoaren ale importanteak ematera bideratua dagoenez, horretan zentratu naiz.

**Liburuko txatal batean diozu, idazle hasiberri batek aholku eskatuz gero, itzultzeko gomendatuko zeniokeela. Hala egin izan duzu zerorrek. Zertan lagundu dizu, zer hobetzen da, itzulia?**

Serio ekin nion lehendabiziko itzulpena izango zen García Márquezen *La Hojarasca*, hogeい urterekin-edo. Nire le-



**ITZULIZ USU BEGIAK**  
Anjel Lertxundi  
ALBERDANIA

hendabiziko sentazioa izan zen zer urrutti geunden, zer urruti nengoentzat eta zer urruti zegoen nire hizkuntza, zenbat oztopo bilatzen nituen. Garai hartan, euskarak idazten ari nintzenean,uste dut banitzela kontziente zer eragozpen izango nituen nire traiektorian, eta hori ona da, horren kontziente izatea, horren aurrean itsu izatea baino askoz hobeto. Aldi berean, azkeneko itzulpen-lana egin nuenean, Montaleren poemak itzuli ntuenean, konturatu nintzen baietz, urrun zegoela, baina posible dela hurbiltzea eta hurbildu garela eta ni neu ere bai, pertsonalki, 40 urte lanean jardun ondoren.

#### Itzulpenak toki handia du gure errealtatean.

Gure egoera guztiz atipikoa da inguratzen gaitutzen hizkuntzekin alderatuta. Gure hizkuntzaren aurpegi ofizial guztia, nagusia eta publikoari ailegatzen zaiona, itzulpenetik dator. Bizi gara sortzailea ez den itzulpen batetik, eta itzulpen sortzailea, literarioa, berriz, oso eremu laburra da, irakurleen esku geratzen da. Noski hor ere badaudela oso itzulpen onak, hor ere asko aurreratu dugu, baina publizitatetik, udaletxeko paperetan... ea zer deskalabrua den hori. Horrek eragiten du baita ere itzulpenaren fama txarra, hori da gainetik ezartzen zai-gun zigor bat.


**DANELE SARRIUGARTE**  
Idazlea



Consegue superar los complejos y  
dificultades gracias a las infalibles  
soluciones de Rafael Santandreu



EDICIÓN ESPECIAL  
AMPLIADA  
5º ANIVERSARIO


Grijalbo | Penguin Random House Grupo Editorial |  | Disponible en ebook

**“Cuando decidí localizar mi novela en Urdaibai, supe que sería de suspense”**

# IBON MARTÍN

FOTOGRAFÍA: JUAN DIEGO RAMOS MARTÍNEZ

**La danza de los tulipanes** (Plaza & Janés, 2019) es una novela de incertidumbres, expectativas e inquietudes. Es un relato sólido, donde los afectos, las tristezas y las alegrías más cotidianas conviven con la obvia inadmisibilidad de lo trágico, y lo injusto. Los personajes creados por Ibon Martín (Donostia, 1976) son gente común, con inquietudes comunes, y el paisaje donde todo ocurre es un entorno idóneo para la historia, su misterio, y su lectura.



LA DANZA DE LOS TULIPANES  
Ibon Martín  
PLAZA & JANÉS

Me apetecía jugar con ese contraste entre la belleza de un escenario idílico, de pueblos varados a la orilla de una ría donde la vida discurre a ritmos tranquilos y un asesino en serie. Ahí entra en juego también el tulipán como firma. Su color rojo brillante, su delicadeza, chocan de frente con el horror absoluto del cuerpo inerte de una víctima. De algún modo, cuando pienso en el escenario de un crimen, lo imagino carente de color. La vida se ha ido y el color con ella. Pero ahí está el tulipán como contrapunto.

**Imagino que el proceso de documentación habrá sido largo y muy interesante.**

La documentación es una de las fases más apasionantes a la hora de abordar una novela. Son muchas las visitas a comisarías, charlas con ertzainas y whatsapps con dudas que a menudo se resuelven desde un coche patrulla. Pero también ha habido una dosis importante de investigación periodística y de hemeroteca. Además, querer saberlo todo sobre el tulipán me ha llevado a descubrir el banco de germoplasma que gestiona Aranzadi, uno de los regalos que me quedará para siempre de esta novela. Pero lo que más he disfrutado han sido las muchísimas jornadas de paseo por Urdaibai, de vida junto a sus orillas, de perderme en sus bares y mercados, de escuchar conversaciones ajenas. También eso es documentación, claro.

TERESA SALA  
Periodista

Entrevista completa:  
<http://bit.ly/danza-tulipanes>



Ibon Martín  
ISILTASUNAREN  
ITSASARGIA

Itzultzalea: Aiora Jaka Irizar



Leire Altuna idazlea Platako itsasargian bizi da, baina bat-batean odolezko zurrubilo batean sartua ikusiko du bere burua, etxe atarian emakume baten gorputua agertzen denean, sabela husturik eta bera heriotza horren susmagarri bihurtua.

elkar

[www.elkarargitaletxea.eus](http://www.elkarargitaletxea.eus)

**¿Cuándo y cómo supo que tenía que contar esta historia?**

Hace ya muchos años caí rendido ante la belleza de Urdaibai. Buscaba senderos desconocidos que incluir en una de mis guías de excursiones y de pronto me di de bruces con esta joya. La única reserva de la biosfera que tenemos en la costa vasca me enamoró. Supe inmediatamente que Urdaibai tenía que ser mucho más que un simple paseo. Desde entonces he vuelto una y otra vez por la comarca, he paseado sin rumbo, he trepado a San Pedro de Atxarre, he soñado en el tren de las marismas y he dejado volar las horas con las piernas colgando de los embarcaderos de Murueta. Han hecho falta varias novelas para sentir que estaba preparado para sacarle el jugo a cada rincón de la ría.

**¿Tenía claro que iba a ser una de misterio?**

Cuando decidí que Urdaibai acogería la localización de mi novela, supe que lo que escribieraería de suspense.

**“He encontrado criaturas que yo creía propias del Baztan en Luisiana”**

# DOLORES REDONDO



FOTOGRAFÍA: XABIER TORRES-BACCHETTA

**La cara norte del corazón, publicada por Destino, es la precuela de la célebre “trilogía del Baztan”. Protagonizada por Amaia Salazar, una vieja conocida de los miles de lectores de la donostiarra Dolores Redondo, esta historia transcurre en el Nueva Orleans del huracán Katrina. Allí, en una ciudad inundada y prácticamente incomunicada, participa en una investigación dirigida a atrapar a “El compositor”, un asesino que actúa durante las grandes catástrofes naturales.**

**En La cara norte del corazón los lectores se reencuentran con Amaia Salazar, y descubrirán una parte de su pasado.**

Sí, era una deuda pendiente con los lectores, algo que me apetecía mucho contar, que no tuvo cabida en la trilogía y que toca contar ahora. Tiene que ver con el momento en el que Amaia sale definitivamente de Elizondo.

**A Amaia Salazar la ha fortalecido el dolor.**

Sí, una de las cosas más particulares de Amaia y por las que gusta tanto, y no solo aquí, es que ella es una víctima; y cuando una ha sufrido tanto en la infancia tiene serias dificultades para superar el hecho traumático, pero Amaia se empodera en su dolor, en su miedo, y lo usa como un arma para proteger a las víctimas y perseguir a los asesinos.

**Pantanos, la cultura cajún, la magia negra, la música... Imagino que son muchas las razones por las que ambientar una historia en Nueva Orleans debe de ser gratificante.**

Sí, la documentación fue maravillosa. Cuando fui a Nueva Orleans, me quedé enamorada de esa ciudad y de la



**LA CARA NORTE DEL CORAZÓN**  
Dolores Redondo  
DESTINO

fuerza que tienen para resurgir. Previamente, ya había establecido las similitudes entre conceptos antropológicos de aquí y de allí. Se trata de coincidencias que tienen lógica porque los miedos del ser humano son similares en todo el mundo. Así que ha sido muy especial encontrarme criaturas que yo creía solo propias de Baztan, de la mitología pirenaica, en los pantanos de Luisiana.

**Ha ideado una investigación en la que los personajes trabajan “con las manos atadas”.**

Sí, el propio escenario hace que haya elementos distintos. En la primera parte los escenarios son más frecuentes, habituales de la novela policiaca: despachos, escenas del crimen..., pero luego hay una segunda parte con un escenario poco habitual, ya que la investigación se lleva a cabo sin las herramientas tecnológicas que hay en la actualidad. No en vano, la investigación se sitúa en una ciudad inundada en el 80%, sin ningún tipo de comunicación a excepción de unas pocas líneas telefónicas fijas, sin luz..., y ahí la investigación se vuelve intuitiva.

**La novela también encierra una denuncia.**

Sí, el huracán Katrina me sirve para hacer una denuncia, algo inherente a toda novela negra, de lo que allí ocurrió, que no fue un huracán, sino un abandono de la administración, de una parte de la población que consideran de segunda, y los dejaron morir.

**TXANI RODRÍGUEZ**  
Periodista



**¡Estas navidades conviértete en un auténtico destrozador con Keri Smith!**

#DestrozarEsCrear



**PAIDÓS**  
[www.paidos.com](http://www.paidos.com)  
[www.elartistaerestu.com](http://www.elartistaerestu.com)

# AKTIBATZEKO GIDA BIKAINA


**Kike Amonarrizek *Euskararen bidegurutzetik* argitaratu du**

Demagun hain kuttunak dituen telebista saio horietako batean kale inuesta egin eta galdezen dutela: "Nor datorkizu burura 'euskara' hitza entzunda?". Ziur nago kaletar askok erantzungo lukele: "Kike Amonarriz". Izan ere, inor gutxi egongo da Euskal Herrian horren-besteko esparrutan jardun arren beti euskararen harian mantendu denik: Tolosako udala, Siadeco, Galtzaundi euskara elkartea, Argia, ETB, Euskalrdia, Topagunea... Lan horietako zenbait jendaurrekoak izan dira eta fahatu egin dute; baina, gainera, Euskal Herrian zehar zientoka hitzaldi emana da Kike, askotan edukiz serioak eta beti moldez umoretsuak, erakargarriak. Horregatik, bere aurpegi irribera euskararena da, euskaltzale askorentzat.

Ez daukat ahazteko duela hogeibost bat urte gertatu zitzaidana. Saso hartan hasi berria nintzen ETBn *Hitzaro* saioa aurkezten, eta ez nekiñ 'famatu' bihurtzen hasita ote nengoen. Igande goiz batean sartu nintzen ohi bezala Elorrioko Mariren tabernan, eguneko egunkariak erostera, eta barran erdi lo zegoen gaupasero bat piztu bezala egin zen ni ikusterakoan: "Aibadiossss! Telebisssstakue!" Baino harrotzen hasteko astirik gabe etorri zen desengainua: "Aibadiossss! Txisskkolakuel!" Gure Kike, alegia. Bera bai zen famatua, ordurako.

Egindako ibilbide luze eta oparoan, analisi, landa-lan, bizenpen, dokumentu eta anekdota ugari pilatu ditu Kikek. Eta hain zuzen, horien bilduma den liburuarekin dator orain plazara: *Euskararen bidegurutzetik*.

Bilduma dakar, bai, baina entresaka zorrotza eginda, hala ere, kontakizunaren hariari erritmoa emate aldera.



**EUSKARAREN  
BIDEGURUTZETIK**  
Kike Amonarriz  
ELKAR


Nabari da egileak irakurle ahalik eta gehienengana iritsi nahi duela, eta edonork erraz irakurtzeko liburu ondu du. Badaude euskararen biziberritze prozesua ulertzeko ezinbestean behar diren gakoak, izan iker-

keta zientifiko baten ondorioak nahiz edozein kaletan jasotako erreakzio esanguratsua; jaso ditu, halaber, hainbat laneko dokumentu, gidoi edo hitzaldi, kasu batuetan erreferentzia bihurtu direnak, hala nola, Gipuzkoako Foru Aldundiak Abbadia saria eman zionean Kikek egindako aldarri gogoangarría; baina interes berezia hartzen dute oraintxe gertatzen ari denari buruzko iruzkinak, etorkizuna moldatzeko balio dezaketen neurrian.

Izan ere, liburua ez da nagusiki atzera begirakoen bilduma, baizik eta aurrera begirako gida. Balio du, noski, egindakoa ezagutzea eta bere garrantzia jabetzea; alde horretatik, dibulgazio tresna bikaina eskaintzen digu egileak. Baina antzematen da bere helburu nagusia dela euskarari etorkizun hobea ematea, euskaltzale guztiaren ametsa hurbilduz.

Helburua lortzeko errezeta argia proposatzen du Kikek: hiztun komunitatean dauden indar banakoak eta taldekoak aktibatzea, eta guztiak lankidetzen biltzea, zoru komunaren gainean etorkizuneko agertoki desiratua elkarrekin eraikitzea. Eta, bidean lagungarri izan dakigun, aktibatzeko gida bikaina erditu du Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari berriak.

**MIKEL IRIZAR**  
Euskalgintzako eragilea



**Eduardo Mendoza**  
*El negociado del yin y el yang*

**EDUARDO MENDOZA**  
REGRESA CON NUEVAS ANDANZAS DE RUFO BATALLA  
Y SU PINTORESCA ALIANZA CON EL PRÍNCIPE TUKUULO

 Seix Barral

# Bestea bataren lekuau

## Duela 70 urte

1949ko ekaina gerraosteko Parisen: hiria borborka, egoste kultural betean. Aldizkari politikoak eskuz esku-dabiltza, *Les Temps modernesek* lau urte daramatzatza moldiztegietatik kioskorakoa egiten; ikasleen zorroetan taupaka ari dira Marxen, Kafkaren, Camusen, Sartreren, *Apollinaireren* liburuak; emakumeen bozka es-kubidea ez da lortu zaharra, bi hilabete dira esnekienn errazionamendua amaitu zela. Salda horretan publikatuko du *Simone de Beauvoirrek* (1908-1986) kultur giroa irakiten jarriko duen saikera mardula: *Bigarren sexua*.

Gallimard argitaletxeak eman zuen argitara eta 20.000 ale saldu ziren hiru egunetan. Itzal handiko intelektual zenbaitek –Camusek “gizon francesaren aurkako” eraso gogaikarrizat jo zuen– eta Vatikanoak berak berehala gaitzetsi zuten liburua. Ezker ez zuen eragotzi, ordea, saioa feminismoen testu fundazioan bilakatzea eta erreferentzia izatea ondorengo feministak askorentzat: Kate Milletentzat, Monique Wittgentzat, Adrienne Richentzat... Luze eta zabal landu baitzituen geroko feministentzat funtsezkoak izan diren hainbat gai: emakumezko esentziaren ukazioa, androzentismoaren kritika, kulturalki eraikitakoaren naturalizazio faltsua, ezkontzaren esklabotza, prostituzioa, borroka kolektiboaren beharra... Hitzetik hortzera aditzen ditugu, ordutik, Beauvoirrek surian beltz jarritako hainbat aldarri; ezagunena, akaso, honakoa:

*“Emakume ez da jaiotzen:  
egin egiten da”*

Nola bilakatzen da, ordea, gizaki bat emakume? Nola bihurtzen da Bata –unibertsala, maskulinoa, subjektua– Beste –partikular, femenino, objektu–? Zein prozesu psikologiko, historiko, antropologiko, judicial, ekonomiko, afektibo-sexual... behar dira Batetik Beste egiteko? Bestearen bidez Bata finkatzeko? Emakumea eraikiz baino ezin baita eraiki gizona. Gizona ere ez baita jaiozten: egin egiten da, oposizioz egin ere, emakumearen

ifrentzuan: “horregatik, emakumea hain zaio beharreko gizonari bere bozkario eta garaipenerako, non esan baitezakegu emakumerik izan ez balitz gizonek asmatu egingo zutela”, idatzi zuen Beauvoirrek.

Existentialismoa da autorearen pentsamenduaren oinarria, eta fenomenologiak ere edan zuen. “Dena dela, ezin konta ahala iturri erabili zituen, eta ondo ezagutzen zuen aurreko feministen edo protofeministen lana: Christine de Pizan, Olympe de Gouges, Mary Wollstonecraft, sufragistak, Virginia Woolf... Gogoeta sakona egin zuen nagusia eta esklaboaren dialektikaz ere, eta hori Hegeli hartzu zion. Marxen Kapitalak ere eragin handia izan zuen Simonerengan”, baiezatzen du *Bigarren sexua* euskarari ekarri dion Irene Arrarats itzultzaleak.

## Ez da zahartu




Orain arte *Besteen odola* (Ibaizabal, 2000) baino ez du gu izan Beauvoirren uztatik euskaraz, eta autoreari buruzko biografia bat, *Simone de Beauvoir. Emakume libre bat XX. Mendearen* (Elkar, 2008) Arantxa Agirreurreta idatzia. Parisko lehen edizio hartatik 70 urteria ikasi du *Bigarren sexuak* euskaraz, eta Irene Arraratek itzuli eta Eskafandra bilduman argitaratu da *Simone de Beauvoirren* lanik garrantzitsuena. Autorea hila da, testua ez da zahartu, ordea: “1949ko munduaren ezaugarri asko eta asko hortxe daude, berdin-berdin, eta, gainera, batzuk gaindituak zeudela ematen zuen, baina orain indarbeirutik itzultzen ari dira: *Simonek ezin argiago aztertu*



Una apasionante crónica de lo que somos y de lo que fuimos en la que Iñaki Egaña, apoyado en los últimos descubrimientos científicos, ensambla de manera magistral la historia de la humanidad y la historia vasca.

[txalaparta.eus](http://txalaparta.eus)



**BIGARREN SEXUA I**


Egitateak eta Mitoak

**BIGARREN SEXUA II**

Bizi izandako esperientzia

Simone de Beauvoir

ESKAFANDRA



zuen nola lortzen duen patriarkatuak emakumea gizozaren mendekoa izatea, eta arrunt argigarria da oraindik ere, mekanismo ia guztiak hortxe diraute, no-labait moldaturik eta mozorroturik. Emakumea Bestea da orain ere arlo guztieta, baita berdintasun formala onartzen zaion herrialdeetan ere".

Gaur egungo gazteak ere astinduko ditu joan den mendetik datorren haizeak: libreki aukeratutako zenbateraino da libreki aukeratua?, zer da emakume izatea?, zein da feminitatea deitzen duten horren muina?, zertarako sortu du patriarkatuak feminitatea?, autonomia ekonomikoa aski da libre izateko?... Begien bistan behar genitzueen galderak, *naturaltasunak* sarri es-taltzen dizkigunak. "Neska gazteek ezusteko galanta hartuko dute *Bigarren sexuarekin*. Simoneren analisiak argia ekartzdu gaurko auzi korapilatsu askotan: zirujauaren zehaztasunez sartzen dio bisturia emakumeen zapalkuntzari. Ideologikoki nahasia eta uherra den garai honetan, argigarria da oinarri-oinarriei erreparatzea, eta hori ematen digu *Simonek, oinarri sendoa, muina*" dio *Arraratsek*.

Bestea bataren lekuaren jartzen denean hasten da lurrika-ra, eta adokinen azpian gorputzak daude hareaz gain.

**UXUE ALBERDI**  
Idazlea


## BIGARREN SEXUA Mundu bat bi liburukan

*Bigarren sexuak* bi liburuki ditu, eta halaxe argitaratuko da euskaraz ere.

- *Egitateak eta mitoak*: sarrera bat eta hiru parte ditu: lehenengoak, biologieren ikuspegia, psikoanalisiarena eta materialismo historikoarena dakartzza; bigarrenak, historiareneko errepasoak; hirugarrenak, mitoak.
- *Bizi izandako esperientzia*: sarrera bat, lau parte eta ondorioa. Hauek dira lau

parteak: *Heziketa* (Haurtzaroa, Neska gaztea, Sexu-iniziazioa, Lesbiania); bigarrena, *Egoera* (Emakume ezkondua, Ama, Bizimodu soziala, Prostitutak eta hetairak, Helduarotik zahartzarora, Emakumearen egoera eta aiurria); hirugarrena, *Justifikazioak* (Emakume nartzisista, Emakume maitemindua, Emakume mistikoa); laugarrena, *Aska-penerantz* (Emakume independentea).





ARGAZKIA: SONIA FLORES PAZ

# UNAI ELORRIAGA

**“Nobelaz mozorrotutako ipuin-liburua da hau. Mozorroa kendu eta bertan topatuko du irakurleak liburuaren muina”**

**Unai Elorriagak *Iturria* izeneko lana plazaratu berri du. Zalantzak gabe, lan bikaina, literaturaren botere katartikoan sakontzen duen obra horietariko bat. Bere orriotan, irakurleak ipuin estonagarriak topatuko ditu, kalibre handiko narrazioa osatzen dutenak. Zabaldu iturria eta edan bertako ura, ez zarete damutuko.**

Narrazio enmarkatuaren aurrean gaude. Narrazio nagusi batek beste narrazio (ipuin) batzuk barnebiltzen ditu. Ipuinok pisua hartzen dute narrazioan nabarmenki, progresiboki. Hortaz, badira ardatza?

Dudarik gabe. Ipuin-liburua idatzi nahi nuen nik, horretan jarri izan dut hasieratik indarrik handiena eta, zuk esaten duzun moduan, ipuinak, narrazioak dira ardatza. Azala da beste guztia, ipuinak biltzen dituen azala, zuritu behar dena mamira heltzeko. Esan dezakegu nobelaz mozorrotutako ipuin-liburua dela hau. Mozorroa, berez, ikusgarria da, mozorro gehienak bezala, baina mozorro kendu eta bertan topatuko du irakurleak liburuaren muina.


Ipuinok inpaktu eta desoreka “zoragarria” dakartzate berekin. Soro Barturenek (protagonistetako bat) horiei buruzko galdera zehatzak egiten ditu.

**Zergatik ezkutatzen dira gauzak ipuinetan? Zergatik ez da dena kontatzen?**

Hori da, nire ustez, literaturaren elementurik ederrenetako bat. Hau da, idazle batek ondo jakin behar du zer kontatuko duen, baina hobeto zer ez duen kontatuko behar, zer isildu behar duen, zer utzi behar dion irakurleari. Modu horretan, interpretazio desberdinetarako aukerak zabaltzen ditu, biderkatu egiten ditu kontakizunaren bidekak, sakonera ilunagoetara hel daiteke.

**Ipuinok ez-lekuak eta ez-denborak markatzen dituzte, hortxe girotu dituzu, bi mundu paralelotan, sofistikaziorik gabe. Giro deskribagaitz hori baina, narrazio osoan hedatzen da. Lanaren bereizgarritasuna da.**

“Ez-lekuak” barik “edonon-lekuak” esango nieke, zilegi bazait hitz berri zatar hori. Ez-lekuak leku inpertsonalei



**ITURRIA**  
Unai Elorriaga  
SUSA

esan izan diegu, aireportuei, ospitaleei eta parekoei, baina ipuin hauetan agertzen diren lekuak oso pertsonalak izan daitezke, familia etxeak berbarako. Egia da, ostera, leku horiek “edonon” egon daitezkeela, ez dudala momentu bakar batean esaten non edo nondik ari diren pertsonaiak. Horrek arrazoi bat dauka: leku edo denbora jakin bat ematen duzunean, ipuina zamatu egiten duzu, historia jakin batekin, politika jakin batekin, kultura jakin batekin... Eta ez nituen ipuinak zamatu nahi, arindu nahi nituen, gordindu.

**“Hiltzen ari da Barturen”. Pertsonaia horri buruzko detaile izugarri horrek heriotzaren hatsa hedatzen du narrazioan. Heriotzaz, eta nola ez, literaturaz mintzatu nahi izan duzu eskrupulurik gabe.**

Heriotz leku gehienetan aurkituko du irakurleak, hala da; ezkutuan egongo da batuetan, umore bihurtuta beste batuetan, baina ia beti presente. Zeri idatziko diogu bestela? Ez dakigunari, ezagutzen ez denari idatzi behar diogu. Guk dakiguna, ezagutzen duguna, mundu guztia ezagutzen du, zertarako errepikatu. Nork daki ezer, ordea, heriotzari buruz? Augusto Monterrosok esandako hura gogoan daukat sarri: “Hiru gai baino ez dago munduan: maitasuna, heriotza eta euliak.”

**JUANRA MADARIAGA**  
Kazetaria

Elkarritzeta osorik:  
<http://bit.ly/iturriaa>



**USBORNE**  
El mejor remedio para las frías tardes de invierno

LIBRO Y PUZZLE  
Al piano en el sol

Poppy y Santi  
Aventuras del Món de los tractores

Mi libro de la guitarra

[usborne.es](http://usborne.es)




**“Es una historia que transcurre en una época convulsa donde política y religión se entremezclan”**


# TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA

FOTOGRAFÍA: XABIER TORRES-BACCHETTA

**La caza de brujas en Euskal Herria fue mucho más que Zugarramurdi y Pierre de Lancre. Toti Martínez de Lezea recrea en su nueva novela, *Hierba de Brujas*, en castellano, *Sorgin Belarra*, en euskera, un episodio tan cruento como desconocido. En tan dramáticas circunstancias teje los hilos de sus vidas una variopinta saga de personajes.**



**HIERBA DE BRUJAS**  
Toti Martínez de Lezea  
EREIN



**SORGIN BELARRA**  
Toti Martínez de Lezea  
EREIN

**En *Hierba de Brujas* vuelve al siglo XVI, a uno de sus episodios más traumáticos, la caza de brujas. Sin embargo, son hechos poco conocidos, que no han alcanzado la notoriedad de los de Zugarramurdi en 1610. ¿Por qué ha elegido ese capítulo de nuestro pasado?**

Precisamente por eso, porque es poco conocido. Para hacernos una idea, en Logroño juzgaron a medio centenar de vecinos y vecinas de Zugarramurdi, ejecutando en la hoguera a once de ellos. Noventa años antes, 1525-1527, en los valles de Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa y Erro, asesinaron a entre cien y doscientas personas en la hoguera y en la horca. Los historiadores no se ponen de acuerdo, pero no hubo pueblo ni aldea que no sufriera la acción de los jueces civiles enviados por el Consejo Real de Navarra, ya entonces bajo la Corona de Castilla.

**En la novela son varias las voces que interpretan la caza de brujas como una forma de disciplinar a comunidades rebeldes. ¿Comparte esa visión?**

Por supuesto. Barandiaran, Caro Baroja, Lacarra y algunos otros señalan este hecho, aunque hipotéticamente, puesto que no existe documentación que avale que la caza de brujas fuera un medio de represión, muy efectivo, por cierto. Una prueba podría ser el hecho de que el licenciado Pedro de Balanza, uno de los seis consejeros reales, juez y oidor de Navarra, fuera a Iparralde en 1521 al mando de un ejército y cuatro años después acudió a los valles a... ¿azar brujas? Es ridículo, y más en aquellas zonas, claramente agramontesas, contrarias a la ocupación extranjera.

**Esa represión también se aplica, caso del personaje de Milia, como vía para socavar una serie de prácticas, saberes y oficios transmitidos de generación en generación entre mujeres...**

Digamos que aprovecharon para matar dos pájaros de un tiro. Por un lado, acabar con los focos de resistencia al nuevo gobierno y por otro, con los remanentes "paganos" que persistían en la zona, mantenidos y transmitidos por las mujeres, y de paso también con la lengua y las tradiciones, incomprensibles para los nuevos ocupantes.

**A parte de los hechos históricos, ¿qué plantea *Hierba de Brujas*?**

Una novela es ante todo una narración sobre unos personajes, sus ideas, sus modos de vida, ambiciones, miedos... El hecho de situarlos en una época concreta, es solo el escenario de la trama. En *Hierba de Brujas* los lectores encontrarán, entre otros, a una joven, Loredi, condenada desde su nacimiento por ser la séptima de siete hijas; a su padre, Balendin, dispuesto a todo con tal de salvarla de los infundios; al juez Balanza, hombre chaquetero donde los haya con tal de medrar y enriquecerse; a Avellaneda, obsesionado con el sexo y la caza de brujos inexistentes. Es una historia que transcurre en una época convulsa donde política y religión se entremezclan, y en la que sus protagonistas se debaten entre el bien, el mal y la supervivencia.

**TOMÁS ZABALLA**  
Periodista

**Descubre las claves para mejorar tu vida.**

**Estas navidades,  
¡REGALA  
BIENESTAR!**


**PAIDÓS** [www.paidos.com](http://www.paidos.com) **Zenith**  [@ZenithLibros](https://www.zenithlibros.com)

# ANTZARA EGUNA

Frakaso baten emaitza da *Antzara eguna* komikia.

Duela zazpi edo zortzi urte, ekoizle batek Santi Brouard buruzko luzemeta baterako gidoia idatzeko proposamen luzatu zidan. Jakina den bezala, 1984an tiroz hil zuten Brouard bere kontsultant eta bere heriotzak zirrara handia eragin zuen Euskal Herrian. HASI alderdiko lehendakaria, HBko mahai nazionaleko kidea, Bilboko alkateordea, parlamentaria, mediku pediatra... Nola harrapatu bera bezalako pertsona karismatiko baten ertzak gidoi batean? Kronologia konbentzionalari uko egitea erabaki nuen, istorioa geruzatan banatu eta filmaren egitura "ipuin" modukoetan antolatzea. Horrela, ataletako batean haren pediatria kontsultako giroaren bitarte garbia eta Santiren sosial profesionala eta gizatiarra azalduko ziren, beste batean HASIKO bileretako giroa, hirugarren batean hura hiltzeko "enkargua" jaso zutenen prestaketa, etab. Horrek, gainera, istorioari arnasa eman eta pasarte samurra-goa tartekatzea ahalmentzen zidala ohartu nintzen.

Politikari buruz erruz-



## ANTZARA EGUNA

Harkaitz Cano - Adur Larrea  
TXALAPARTA

eta jakinaren gainean- hitz egiten zen sasoia izaki, pertsonaiet ere asko hitz egin zezaten nahi nuen; film parlatua egitea zen asmoa. Gurean zinema berbatia komediarekin lotu izan bada ere, inbidia handia eman izan didate beti elkarrizketa mamitsua

narrazioaren partetzat konplexurik gabe erabiltzen duten film –demagun– frantses edo latinoamerikarrek, non pertsonaiet eztabaidea luze bezain sutsuak izan ditzaketen, hitza munizion zinemografiko bihurtzeari uko egin gabe. Santiren adiskide Javi Pascualen bidez, haren agenda esku artean izateko zortea ere izan nuen. Harri eta zur utzi ninduen agenda barruan, telefono zenbakiez gain, literatur zitak, poema zatiak eta bestelako aipuak gordetzen zituela ikustea. Inspirazio iturri izan ziren papertxo haien niretzat, eta hari horretatik tiraka ateratakoak dira komikian aipatzen diren pasarte literario ia guztiak. Agenda hartan, besteak beste, Eva Foresten telefonoa topatu nuen. Hortik abiatuta, Santi Brouardek Teresa Aldamizekin Eva Foresten eta Alfonso Sastreren etxearen bizi izandako balizko otordu bat asmatu nuen, sentipena baitut gure zinemana ustiatu gabeko zerbaite direla euskal idiosinkrasiako bazkaloste amaiezinak. Baziren, jakina, *thriller* girora gehiago hurbiltzen ziren beste atal batzuk, tentsio zinemografikoak mantentzea bilatzen zutenak.

Erran gabe doa, enkargua egin zidan ekoizleari ez zitzaien gidoia interesatu. Ezin esan harritu nintzenik, aspaldi jabetuta bainago gure artean ikus-entzunezkoak ekoizten dituzten gehienetan parametroak ez dato zela literatur sortzaileon interesekin bat. Zinemarako gidoi frakasatu horren ondoren, garbi ikusi nuen zein zen hurrengo pausoak: pobrean zinema. Alegia, komikia. Gidoi hora kimatu eta egokitu ondoren, *Adur Larreak* lan bikaina egin du Santi Brouard eta 80ko hamarkadako giro bortitz bezain borborkaria eleberri grafikoaren txuri-beltzezko kodeetara ekartzan. Batuetan, zinez gauza ederra da frakasoa.

## HARKAITZ CANO

Idazlea

**¡DEMASIADOS VILLANOS!**  
**¡QUE ENTREN LOS VALIENTES!**



MAEVA young

**“He querido indagar sobre el impacto de la Guerra Civil en las familias y en los pueblos”**



# BEGOÑA ELORRIETA

